

**71 Euskal Udalerritako milioi erdi familiak Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrakoko adierazpena egingo dute astearte honetan, hilak 25, Eudelek sustaturiko ekintza sinkronizatu baten bidez**

- **Ekintza aitzindari hau “Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren” baitan gauzatuko da, datorren asteartean, azaroak 25**
- **Parte hartzen duten 71 udalerririk herritarren %71 dira, eta aipatu ekimenaren baitan, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kartelak banatuko dituzte, etxez etxe, honako lelopean: “No a la Violencia Contra las Mujeres, Emakumeenganako Indarkeriari Ez”**
- **Herritarren parte-hartzeari esker, 500.000 etxetako leihoetan Indarkeriari EZ leloa agertzea espero da; horretarako, puntu batez adierazitako sinboloa erabiliko da**
- **Udal-ordezkariek gaur jarri dute irudi hori Eudeleko egoitzaren leihoetan**
- **Parte-hartze anitza lortu nahi du Eudelek: herritarren aldetik, komunikabideen aldetik, garraioen aldetik... horiek guztiek kanpainarekin bat egin eta kartela jar dezaten komertzioetan, egunkarietan, etab. Irudia Eudelen web orrian eskuratu daiteke: [www.eudel.net](http://www.eudel.net)**
- **EUDELEk sustaturiko kanpaina horrek osatu egingo du “Nik emakumeenganako indarkeriari EZ, eta zuk?” lelopean BERDINSAREaren bidez Emakunderekin elkarlanean martxan jarri den kanpaina**



**Bilbo, 2008ko azaroaren 20a.** Datorren azaroaren 25ean, milioi erdi etxetako leihoetan kartelak jarriko dituzte, Emakumeen Aurkako Indarkeriari erabateko ukoa adierazteko. Hori da helburua. Izan ere, datorren asteartean Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Eudelek ekintza aitzindari bat sustatu du euskal udalen artean; eta behar besteko arrakasta lortzeko, nahitaezkoa da herritarren parte-hartzea.

Ekintza horretan, euskal herritarren %71 ordezkatzeko 71 udalerririk hartuko dute parte. Emakumeen aurkako indarkeriari ukoa adierazten dieten kartelak banatuko dituzte, etxez etxe, honako lelopean: “No a la Violencia Contra las Mujeres, Emakuneenganako Indarkeriari Ez” Helburua honakoa da: egun horretan, eta aldi berean, udalerririk horietako milioi erdi etxetan Indarkeriari Ez esatea. Ekimen horren osagarri gisa, Indarkeriaren aurkako ekitaldiak egingo dira udaletxe bakoitzaren kanpoaldean. Parte hartuko duten 71 udaletatik, 8 Arabakoak dira, 18 Gipuzkoakoak eta 45 Bizkaikoak.

Aipatu kartelean zera adieraziko da: ““Nik emakumeenganako indarkeriari EZ, eta zuk?””.

Datorren asteartean, hilak 25, indarkeria matxistaren aurka manifestatzeko gonbitea egin zaie beraz, puntua agertzen den kartela leiho erdian jarri. Kanpainak adierazi bezala, “Sinbolo horren bidez, sexu-indarkeriaren aurkako jarrera bateratu bat adierazi nahi dugu gizartearen aldetik”.

Hauek izango dira Udalak: Abadiño, Amurrio, Arrigorriaga, Artea, Aulesti, Azkoitia, Balmaseda, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bermeo, Bernedo, Berriz, Bilbo, Deba, Donostia, Durango, Ea, Eibar, Elgoibar, Elorrio, Erandio, Ermua, Ezkio-Itsaso, Galdakao, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Getxo, Gordexola, Gorliz, Hernani, Irura, Iurreta, Laguardia, Lasarte-Oria, Laudio, Legazpi, Legutio, Lekeitio, Lemoiz, Lezama, Mallabia, Mendaro, Mundaka, Mungia, Muskiz, Mutriku, Narbaniz, Okondo, Ondarroa, Orozko, Oñati, Orozko, Ortuella, Plentzia, Santurtzi, Sopela, Sopena, Soraluze, Tolosa, Ugao-Miraballes, Urduliz, Urretxu, Gasteiz, Zaldibar, Zalla, Zizurkil, Zuia, Zumarraga.

## **Herritarren lankidetz**

Ekimenean parte hartu nahiko luketen gainerako udal, komunikabide, denda, ostalari, garraiobide etab, garaiz daude oraindik. Beraien parte-hartzearekin, izan ere, ekimena are arrakastatsuagoa izango baita. Horretarako, kartelaren irudia deskargatu besterik ez da egin behar, honako web gunetik: [www.eudel.es](http://www.eudel.es). Gaurko prentsaurrekoan parte hartu duten udal-ordezkariek, datorren asteartean ikusi ahalko den irudia ezarri dute Eudelen egoitzako leihoetan.

Ekintza hori da gai honen inguruan Eudelek burutu duen azkena; izan ere, urte asko daramatza Emakumeen aurkako Indarkeriaren inguruan herritarrak kontzientziatu nahian. Helburu berdina du BERDINSAREAREN bidez Emakunderekin elkarlanean abian jarri den kanpainak: **“Yo digo NO a la violencia contra las mujeres, ¿y tú?”**. **“Nik emakumeenganako indarkeriari EZ, eta zuk?”**”. Aurten, kanpaina gizonei zuzenduta dago bereziki, emakumeenganako indarkeriaren kontra konpromiso aktiboa euren gain hartu dezaten, gaur egun oraindik ere gizartean sartuta dauden jokabide eta pentsamolde sexistak zalantzan jarriz.

**Informazio gehiago:**

**VK** Comunicación

**Maite Gutiérrez / EUDELEko Prentsa Kabinetea**  
**Tel: 94 401 53 06 Mobila: 639 197 133**  
**[maite@vkcomunicacion.com](mailto:maite@vkcomunicacion.com)**